

# COVID-19aren inpaktua eta ondorioak adikzioen eremuan, Euskadin

Laburpen exekutiboa:  
Adikzioen prebentzioaren eremuko emaitzak



# LABURPEN EXEKUTIBOA: Adikzioen prebentzioaren eremuko emaitzak

## IKERLANAREN AURKEZPENA, HELBURUAK ETA METODOLOGIA

Osasunaren Mundu Erakundeak (OME) nazioarteko pandemiatzat jo zuen COVID-19 gaitzak eragindako osasun publikoko larrialdi-egoera 2020ko martxoaren 11n. Euskadin, COVID-19aren lehen kasua 2020ko otsailaren bukaeran jakinarazi zen, eta egun horretatik aurrera, kutsatuen kopurua handituz joan zen pixkanaka. Gaur egun, Euskadi “pandemiaren bigarren olatua” deritzona bizitzen ari da; uztailaren hasieran hasi zen, eta urte bukaeran bere horretan jarraitzen du.

Joan den martxoaren 14tik ekainaren 21era arte, Espainiako estatu guztia koronabirusak eragindako COVID-19 gaitzagatiko osasun-krisiagatik alarma-egoeran murgilduta egon zen (463/2020 Errege Dekretua). Herritar guztiek aurre egin behar izan dieten arrisku orokorrez harago, drogak kontsumitzen dituzten edo adikzioak dituzten pertsonen bestelako arrisku batzuen pean ere egon behar izan dute beharbada, testuinguru horren ondorioz. Zalantzarik gabe, COVID-19ak eragindako egoerak behar, arazo eta zailtasun berriak ekarri dizkie adikzio-jokabideak dituzten pertsonen eta haien senide eta ingurukoei. Aldi berean, egoera horrek erronka berriak ekarri dizkie eremu horretan diharduten profesionalen.

Ikerlan honen helburu orokorra izan da aztertzea zer-nolako inpaktua eta zer ondorio izan dituen COVID-19aren pandemiaren krisiak adikzioen prebentzioaren, arretaren eta tratamenduaren eremuetan Euskadin. Horretarako, bi bilera birtual egin ziren uztailaren hasieran: alde batetik, prebentzioaren eremuan diharduten teknikariek; eta bestetik, adikzio-arazoak dituzten pertsonekin lotuta tratamenduaren eta zuzeneko esku-hartzearen eremuan diharduten profesionalen. Bestalde, bi inkesta egin dira, online, bi kolektibo horietan. Azkenik, ikerlana osatzeko, aztertu nahi izan da adikzioen eta kontsumitzaileen eremura bideratutako zer programa, neurri eta esku-hartze jarri dituzten abian COVID-19aren pandemiaren esparruan erakunde publikoek, bai Espainiako estatuko autonomia-erkidegoetan, bai gure inguruko herrialdeetan.

## ADIKZIOEN PREBENTZIOAREN EREMUKO EMAITZAK

Euskadin adikzioen prebentzioaren eremuan diharduten profesionalen dagokienez, 2020ko uztailaren 1ean egin zen bileran guztira **12 teknikariek** parte hartu zuten, denak ere **9 udalerrri, mankomunitate edo kuadrillatakoak**. Bestalde, ikerlanean **17 inkestaren** emaitzak sartu ziren. Galdetegiari erantzun diotenen tasa, Euskadin eremu horretan teknikariak dituzten toki-entitateak kontuan hartuz, % 34,0 izan da. Zehazki, Arabako lantaldeen % 66,3k, Bizkaiko lantaldeen % 32,0k eta Gipuzkoako lantaldeen % 26,3k hartu dute parte ikerlanean.

### 1. COVID-19ak KONTSUMOAN ETA ADIKZIO-JOKABIDEETAN IZAN DUEN INPAKTUARI BURUZKO IRITZIA

Adikzioen prebentzioaren eremuan diharduten udal-teknikariek diotenez, martxoaren 14an osasun-larrialdiko egoera dekretatu zenetik gaur egun arte, beren toki-entitatean egindako lana kontuan hartuz, **Interneten nahiz sare sozialen erabilera areagotu egin da bai gizonezkoetan (% 58,8) eta bai emakumezkoetan (% 58,8), eta alkoholaren kontsumoak ere gora egin du bi sexuetan (% 47,1 gizonezkoetan eta emakumezkoetan).**

Sexuka banatuta, eremu horretako profesionalen % 65ek uste dute **gizonezkoetan** areagotu egin dela **bideo-jokotan** aritzeko ohitura, eta nabarmentzen dute, bestalde, **emakumezkoetan** gora egin duela **bentzodiazepinen eta psikofarmakoen** (antsiolitiko) **kontsumoak**, medikuaren aginduz (% 35,0).

Konfinamendu-garaian ezarritako **murrizketak nahiz debekuak eta** tabernak, ostalaritzako lokalak, terrazak, apustu-etxeak, joko-aretoak eta abar **itxi** izana **neurri positibotzat** har daitezke adikzioen eremuari dagokionez, espazio publikoetan kontsumo soziala apaltzeko lagungarri izan diren neurrian. Edonola ere, ez dirudi espazio pribatuetan gauza bera gertatu denik, **alkoholaren salmentak gora** egin baitu tabernetatik eta ostalaritzako lokaletatik kanpo;

# LABURPEN EXEKUTIBOA: Adikzioen prebentzioaren eremuko emaitzak

hau da, supermerkatu, elikadura-denda eta halakoetan. Murrizketa horiek herritarren **kontsumo-ohiturak aldatzea** eragin dute. Zehazki, herritarren artean oro har handitu egin da **bakarkako** kontsumoa edo adikzio-jokabidea (% 52,9) – eta modu hori arriskutsuagoa da–, gora egin du COVID-19agatik bizi izandako egoerak eragindako **estres**, larritasun edo antsietateagatik kontsumoak edo adikzio-jokabideak (% 41,2), eta handitu egin da etxean kontsumitzearekiko **permisibitatea** (% 41,2).

**Etxeetan permisibitate handiagoa** izate hori nabarmen islatzen da **adingabeek** bizi izan duten egoeran. Izan ere, ikerlanean parte hartu duten profesionalek diotenez, azken hilabeteotan egin duten lana kontuan hartuz, argi sumatu da 18 urtetik beherakoek askoz denbora gehiago eman dutela pantailen aurrean eta bideo-jokotan ibiltzen. Udal-teknikariak bat datoz honetan: konfinamendu-garaian ordutegiak aldatu izana, sozializatorik eza eta errutinak bat ez etortzea edo errutinen gaineko kontrola murriztea izan daitezke adingabeak telebista aurrean, bideo-jokotan edo Interneten nabigatzen ordu gehiagoan ibiltze horren arrazoiak.

Konfinamendu-fasean **nerabeek eta gazteek** etxean kontsumitzeari dagokionez (tabakoa eta kalamua, batik bat), etxeetan kearekiko esposizioa nabarmen handitzeaz gain, familien erantzunean **bipolarizazioa** sumatu dute prebentzioaren eremuko teknikariek. Alde batetik, familia batzuek ohi baino **permisibitate handiagoa** izan dute etxe barruan kontsumitzeari dagokionez, konfinamendu-garaian gazteekin liskarrik edo eztabaidarik ez izateko, nagusiki. Beste familia batzuek, aldiz, konfinamendua baino lehen ez zekiten seme-alabek kontsumitzen zutenik edo hainbeste kontsumitzen zutenik, eta zuzenean **debekatu edo mugatu** egin dute. Gazteentzat abagune aproposa izan zitekeen egoera hori; lehenik eta behin, ez kontsumitzeko edo kontsumoa gutxitzeko; bigarrenik, zenbaterainoko adikzioa zuten jabetzeko; eta hirugarrenik, uzteko aukera aintzat hartzeko.

## 2. COVID-19ak GIZARTE-TALDEETAN IZANDAKO INPAKTUAN ALDEAK

COVID-19ak adikzioen eremuan gizarte-taldeetan inpaktu desberdina izan duen edo ez, prebentzioaren eremuko teknikariak ez datoz bat. % 29,4k diote **ez dutela uste inpaktuan alderik egon denik**; % 23,5en ustez, inpaktua pixka bat desberdina izan da; % 23,5en iritziz, alde handia egon da inpaktuan; eta gainerako % 23,5ek diote ez dakitela edo ez daudela ziur gizarte-talde batzuetatik besteetara alderik egon den edo ez.

Kontsumoen eta adikzio-jokabideen eremuan COVID-19aren inpaktua pixka bat edo oso desberdina izan dela uste dutenen iritziz (% 47,0), kolektibo hauei **eragin die gehien**:

- Zaurgarritasun-egoeran dauden familiak, diru-sarrera txikiak edo lan-baldintza prekarioak dituztenak.
- Bakarrik bizi diren edo etxebizitza-arazoak dituzten herritarrak.
- Familia desegituratuak eta gurasoen kontrolrik gabeko nerabeak.
- Diagnostikatu gabeko eta tratatu gabeko adikzioak dituzten herritarrak eta haien senideak.
- Lehendik arazo emozionalak, jokabidezkoak edo osasun mentalekoak zituzten herritarrak.
- Hiri-eremuetan bizi diren herritarrak.
- Kontsumitzaile sozialak edo substantziak lortzeko zailtasunak dituzten herritarrak.

## 3. ESKU-HARTZE PLANIFIKATUETAN IZANDAKO ALDAKETAK ARLO-MOTETAN ETA MODUETAN

COVID-19ak eragindako egoerak **inpaktu nabaria** izan du prebentzioaren eremuan diharduten teknikarien jardunean. Gehien-gehienek modu **telematikoan**, birtualean edo etxetik egin dute lan (% 88,2), eta beren toki-entitatetik **aldi baterako bertan behera utzi edo atzeratu** egin behar izan dituzte egin ohi dituzten programa, jarduketa edo esku-hartze programatuak (% 88,2).

# LABURPEN EXEKUTIBOA: Adikzioen prebentzioaren eremuko emaitzak

Bestalde, profesional askok sumatu dute, halaber, egin dituzten programetan edo jarduketetan parte-hartzea gutxitu egin dela (% 82,4), eta askok esan dute egin ohi dituzten esku-hartzeak aldatu edo egokitu egin behar izan dituztela (% 82,4).

Prebentzioaren eremuko programetan, jarduketetan eta esku-hartzeetan egin behar izan dituzten **egokitzapen** –edo teknikariek dioten moduan, **“berrasmatze”**– nagusien artean, hauek nabarmentzen dituzte: alde batetik, erabilitako **bidea edo bitartekoa aldatu** beharra (bide birtualaz baliatu dira, nagusiki); eta bestetik, **esku-hartze modua edo eredia bera aldatu** beharra. Prebentzioaren eremuan egin diren esku-hartze gehienak modu **telematikoan** egin dira; batik bat, prebentzio unibertsalean (% 52,9) eta selektiboan eskola-eremuan (% 41,2).

## 4. IDENTIFIKATUTAKO ARAZO NAGUSIAK

Udal-teknikariei beren jardunean zailtasun gehien eragin dieten alderdietako bat lana aurrez aurre egin ezin izatea da. Gehienak ados daude teknologia berriek erraztu egin dutela lan egiteko modu berri horretara egokitzea, baina inork ez du zalantzan jartzen aurrez aurre lan egitearen garrantzia. Eremu honetan, arazo hauek dira nabarmentzekoak:

- **Antolaketaren aldetik** izandako arazoak, arazo **informatiko, logistiko eta teknikoak, baliabiderik eza**, ezagutza aldetik izandako zailtasunak, etab.
- **Teknologia berriekin** lotutako arazoak: formakuntzakoak, ezagutzakoak, ikastetxeetan baliabide eta gailu gabezia, etab.
- Pandemiaren aurretik (aurrez aurreko lanaren bidez) inplikazioa lortua zuten kasuei modu telematikoan **jarraipena** egiteko zailtasunak: harremanetan jartzeko, parte-hartzaileekin jarraipena egiten jarraitzeko, etab.

- Harremana Internet eta bideo-deien bidez zenez, **intimitatea** galtzea: gazte asko uzkurrago eta familiakoengandik behatuago sentitzen ziren etxetik jardunda.
- Gazte berriek **parte hartzea** lortzeko zailtasun are handiagoa.

## 5. BEHARRAK ETA ETORKIZUNENK O ERROKAK

Adikzioen prebentzioaren eremuan etorkizunean izan litezkeen jardunbide-ildoak dagokienez, teknikariek arlo hauek nabarmendu dituzte landu beharreko erroka gisa:

- Beharrezkotzat daukate **gazteen artean aisiaren eta jai-giroaren arloetan** ere adikzioen prebentzioa lantzea. Uste dute, ezarritako murrizketak eta debekuak gorabehera (jaiak bertan behera uztea, gazte-lokalak ixtea, beste herri batzuetara joan ezina, talde handiak elkartzeko debekua, maskara erabili beharra, distantzia soziala, etab.), gazteek kontsumitzen jarraituko dutela eta beren lanak funtsezkoa izaten jarraituko duela.
- Garrantzitsutzat daukate COVID-19ak eragindako egoeraren **ondorioak** lantzea. Hauek nabarmendu dituzte, besteak beste: dolua, garai horretan hil direnek utzitako hutsunea, ukoa eta gutxiespena gazteen aldetik, etab.
- Beharrezkotzat daukate **zaurgarritasun** handiko egoeran dauden **familiatan** eta garai honetan abandonatuak sentitu ahal izan direnetan are jarraipen eta esku-hartze handiagoa egitea, ildo hori indartzea.
- Beharrezkotzat daukate **hausnartzea** zer-nolako **ondorio ekonomikoak** izan ditzakeen COVID-19ak eragindako egoerak egoera zaurgarriean dauden kolektiboetan eta zer-nolako desperekotasunak sor ditzakeen horrek.
- Garrantzitsutzat daukate **prebentzio adierazia** azpimarratzea, herritar guztiei zuzendutako prebentzio unibertsalaz harago.

## LABURPEN EXEKUTIBOA: Adikzioen prebentzioaren eremuko emaitzak

---

- Garrantzitsutzat daukate adikzioen gaiari osasun **integralaren** ikuspegitik heltzea, adikzioak beti **prebentzioaren** eta **osasun publikoaren** ikuspegitik lantzea.
- Beharrezkotzat daukate toki-entitate guztietako prebentzioaren eremuko teknikarien artean egiazko **lankidetz**a sortzea (udalerrri, mankomunitate eta kuadrilletako teknikarien artean), bi helburu lortzeko: batetik, aliantza, komunikazio eta talde-lan handiagoa sortzeko; eta bestetik, adikzioen prebentzioaren eremuan diharduten profesionalak ahalduntzeko eta haien lanari duen balioa eta aitortza emateko.
- Beharrezkotzat daukate **lan ez-presentziala indartzea** eta programak, jarduketak eta esku-hartzeak egokitzea, azken hilabeteotan bizi izan dugun egoera berriro gertatuko balitz ere, aurrea hartzeko neurri gisa.
- Lan telematika eta bide telematiko berrien erabilera indartzea beharrezkoa eta garrantzitsua izanagatik, prebentzioaren eremuko teknikariek ukazintzat daukate **aurrez aurreko lanari** eutsi beharra, egoerak uzten duen heinean behintzat.
- Beharrezkotzat daukate **formakuntza**: alde batetik, teknologia berrien eremuan, informazioaren eta komunikazioaren teknologietan (IKT), informatikaren eta baliabide eta tresna digitalen eremuan, eta sare sozialetan; eta bestetik, formakuntzazko laguntza eskaintzea edukiak formatu telematikora egokitzeko, lehendik dauden programak berregokitzeko, eduki berriak sortzeko, etab.
- Beharrezkotzat daukate adikzioen eremuan ere **finkatzea** “**protokoloak**”, “jokabide-ildo orokorrak”, “baliabideen gidak”, “jardunbide egokietarako tresnak”, etab. Uste dute jarraitu beharreko ildoei-eta buruzko horrelako gomendio eta aholkuak, modu bateratuan eginez gero, oso baliagarriak izango lirakekeela pandemiarekin bizi izan ditugun moduko egoeretan.
- Azkenik, egiten duten lanaren jarraipena baldintzatu dezaketen murrizketa posibleengatik kezkatuta, beharrezkotzat daukate, gutxienez, **jarraipena ematea** eta **eustea** orain arteko **dirulaguntzei** eta **baliabide ekonomiko**ei, bai eta lehendik planifikatuta dauden proiektuei ere, programek, jarduketek eta esku-hartzeek jarraitu ahal izateko eta egindako lanaren kalitateari eutsi ahal izateko.